

Ordizian, **2017ko apirilaren 27an** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza Jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Joseba Aranburu	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Iñaki Dubreuil Churruca	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Maria Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTU-HARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jauna

BERANDUAGOKO SARTZEAK

AZTERTUTAKO GAIAK


EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1. 2017ko martxoaren 9an egindako ohiko osoko bilkurako akta onartzea.
2. Martxoko Alkatetza Dekretuen berri ematea.
3. Kale-salmenta eta asteroko azoka arautzen duen ordenantzaren behin-behineko onarpena
4. Euskara sustatzen diharduten elkarteei diru-laguntza izendunak esleitzea
5. Kultura sustatzen diharduten elkarteei diru-laguntza izendunak esleitzea
6. Herri Antzokia eta San Jose Egoitzako 2016ko Aurrekontuen likidazioen berri ematea
7. Kontratuen inguruan kontu-hartzailearen 1/2017 ingeraren berri ematea.
8. Aurrekontuaren 22. zenbakidun aldaketaren irizpena onartzea
9. 2016 ekitaldian Udal Aurrekontuan izandako aldaketen berri ematea
10. Orklirekin egindako hitzarmena onartzea
11. HAPOn herritarren partaidetza programarako esparru proposamena onartzea
12. 2017rako Gobernu taldearen inbertsio proposamenak
13. 2017rako EH-BILDU eta ORDIZIA-ORAINen kreditu aldaketa proposamenak
14. Udalaren jardunetan genero zeharkakotasuna ezartzeko 2017ko Plana
15. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana luzatzea
16. Galderak eta eskaerak

ORDUTEGIA

HASIERA: 19:00etan

AMAIERA: 22:40an.



1.- 2017ko martxoaren 9 egindako osoko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2017ko martxoaren 9ko ohiko Osoko bilkurako akta onartzea

Eztabaida

Sukia andrea

Esan du ez dela jaso 8. puntuan bere interbentziorik. Adierazi du egia dela ez duela idatziz bidali bere interbentzioa Idazkariak eskatu duen moduan, akta idazteko, baina bere ustez gutxienez aktan jaso beharko litzateke Sukia andrearen interbentzioa 8. puntukoa grabatua dagoela bilkuraren audioan.

Aktan jasoko da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak bigarren puntuaren berri eman du.

2.- Martxoko Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Ezenarro jauna

17/00247 Dekretuari buruzko informazioa eskatu du, Maxi Eroskin gasolindegia ipintzeari buruzkoa.

Alkate jn.

Informazioa eman dio.

Ezenarro jauna

Esan du harritzen duela instalakuntza horri baimena ematea San Bartolome Eremuaren erabilera bizitegi erakoa izatea aurreikusten delako, horrek eremuaren etorkizuneko garapena oztopa dezakeelako.

Gainera guztiok dakigu negozioa EROSKIren izenean dagoela baina atzean inbertsio funts bat dagoela. Zein exekuzio unetan dagoen galdetu du.

Alkate jn.

Erantzun dio esanez Gai Arrunten Batzordean eta beste batzorderen batean gaiaren inguruko azalpenak eman direla. Azaldu du EROSKIrekin eta atzean dagoen jabetzarekin itxi den kontuetako bat izan dela instalakuntza hau ez izatea eremuaren garapenerako oztopo.

Esan dio hirigintza espedientea hor dagoela edozein gauza argitzeko, eta teknikariak ere hor daudela espedientearen inguruko edozein punturi buruzko azalpenak emateko.


Sukia andrea

"Gai zehatzak" izeneko B/17/00259 Dekretuari buruz galdetu du, Ordizia Lantzen SARI emandako maileguaren abalari dagokiona.

Alkate jn.

Erantzun dio.

Osoko Bilkurak dekretu zerrendaren berri izan du.



3. Kale-salmenta eta asteroko azoka arautzen duen ordenantzaren behin-behineko onarpena

Proposamena

KALEZ KALEKO SALMENTA ETA ASTEROKO AZOKA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA

2001eko urtarrilaren 1ean Ordiziako Udaleko osoko bilkurak kalez kaleko salmenta arautzen zuen ordenantza onartu zuen.

Onartu zenetik urteak joanda, beharrezkoa da ordenantza hori gaur egungo premietara egokitzea; egokitzapen horrek makina bat aldaketa eskatzen ditu erregulazioari dagokionez.

Horregatik, egokiagoa da aipatu aldaketak jasoko dituen ordenantza onartzea gaur egun indarrean dagoena aldatzea baino.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikulua arabera, ordenantza hori onartzeko prozedura honako hau da:

1.- Osoko bilkurak hasiera batean onartzea.

2.- Gutxienez hogeita hamar eguneko epean jendaurreko informazioa eta interesdunei entzutea, horiek erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzaten.

3.- Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena, eta osoko bilkurak behin betikoz onartzea.

2017ko apirilaren 20ko osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordearen aldeko irizpenarekin, proposatu da onartzea honako

AKORDIORAKO PROIEKTUA

1) Kalez kaleko salmenta arautzen duen ordenantza hasiera batean onartzea honekin batera doan testuaren arabera, eta 2001eko urtarrilaren 1ean onartutakoaren arabera kalez kaleko salmenta arautzen zuen ordenantza indarrrik gabe uztea.

2) Hogeita hamar (30) eguneko epean jendaurrean jartzea erreklamazioak eta iradokizunak aurkezte aldera.

3) Hasiera batean onartutako akordio hau behin betikotzat hartua dela ulertuko da baldin eta erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bazaio.

Eztabaida

Alkate jn.

Jakinarazi du ordenantza Azoka Batzordean landu dela eta Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak proposamenaren aldeko irizpena eman duela, baina Berdintasun, Euskara eta Kontu-hartzailatza Sailek denbora gehiago eskatu dute hobeto aztertzeko eta beharezkoak diren klausulak txertatzeko.

Hori guztia ikusita mahai gainean uztea eta beste osoko bilkura batera atzeratzea proposatzen da.

Maiza andrea

Puntua atzeratzeko arrazoiak edo azalpenak egokiak iruditu zaizkio.

Esan du ordenantzak kaleko salmentaren barruan bi araudi edo feria mota bereizten dituela, ferietako saltzaileena alde batetik eta beste aldetik baserriko produktuak saltzen dituzten baserritarrena.

Produktu horiek bertakoak diren kontrolatzen den ala ez, zalantzak ditu, eta kontrolatzen bada, nola egiten den jakin nahi du. Pikareska dagoela uste du eta baserritar batzuek supermerkatuetan produktuak erosten dituzte ondoren azokan saltzeko.

Bere ustez gaia ondo ezagutzen duten pertsona espezializatuak behar dira kontrola egiteko.

Iturrioz jauna

Erantzun dio esanez hori lantzen ari direla Eusko Jaurlaritzarekin.

Puntua mahai gainean uzteko proposamena bozkatu da:

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Puntua mahai gainean geratu da.



4. Aurrekontuaren 22. zenbakidun aldaketaren irizpena onartzea

Proposamena

COMISIÓN DE ASUNTOS DE PLENOAREN IRIZPENA

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean gastu partiden arteko transferentzia bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedienteaz aztertu dugu.

Alkateak egindako proposamena aztertu da. Hortik ondorioztatu da adierazitako aldaketa aurrekontuaren exekuzioa arintzeko lagungarria izango dela eta horren izapidetzea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin. Hori hala izanik, batzorde honek bidezkotzat jo du organo eskudunak onartzea kreditu transferentzia, 237.592,31 eurokoa, bai gehitutako kredituei (altak) dagokienean, bai transferitutako kredituei (bajak) dagokienean, proposamenean ageri diren aurrekontuko gastu partiden xehetasun berarekin.

Kreditu aldaketa honako hau da:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 227.07.135.00 2016	ESTUDIOS TECNICOS. PROTECCION CIVIL	700,00	507,80	192,20
1 224.99.136.00 2016	OTROS SEGUROS.	350,00	5,00	345,00

	SERVICIOS INCENDIOS			
1 227.02.136.00 2016	SEGURIDAD. SERVICIO INCENDIOS	500,00	500,00	0,00
1 227.07.151.00 2016	ESTUDIOS TECNICOS. URBANISMO	25.000,00	1.151,91	23.848,09
1 210.01.160.00 2016	MANT.INSTALACIONES. SANEAMIENTO	1.000,00	860,00	140,00
1 226.99.160.00 2016	GASTOS DIVERSOS. SANEAMIENTO	1.000,00	1.000,00	0,00
1 212.01.162.10 2016	MANT.MAQU.UTILLAJE. ZABOR BILBETA	300,00	300,00	0,00
1 213.01.162.10 2016	IBILGAILUEN MANTENUA	300,00	300,00	0,00
1 224.02.162.10 2016	IBILGAILUAREN ASEGURUAK	135,00	1,75	133,25
1 226.99.162.10 2016	GASTOS DIVERSOS. CAMPAÑA SENSIBILIZACION	3.000,00	3.000,00	0,00
1 221.99.164.00 2016	MATERIAL ESPECIAL. CEMENTERIO	800,00	800,00	0,00
1 227.99.164.00 2016	CONTRATOS SERVICIOS. CEMENTERIO	40.000,00	18.062,70	21.937,30
1 212.01.165.00 2016	MANT.MAQUIN.UTILLAJE. ALUMBRADO PUBLICO	17.000,00	5.926,27	11.073,73
1 227.01.165.00 2016	LIMPIEZA. ALUMBRADO PUBLICO	1.280,00	1.280,00	0,00
1 226.06.170.00 2016	ACTIVIDADES DE MEDIO AMBIENTE	3.000,00	1.582,62	1.417,38
1 214.01.171.20 2016	MANT.MOBILIARIO. PARQUE OIANGU	2.000,00	2.000,00	0,00
1 227.07.171.20 2016	ESTUDIOS TECNICOS. OIANGU	22.000,00	4.406,20	17.593,80
1 226.03.231.00 2016	PUBLICIDAD. BIENESTAR SOCIAL	2.500,00	2.500,00	0,00
1 226.05.231.50 2016	ACTUACIONES FORMATIVAS. PR.IGUALDAD	1.500,00	653,00	847,00
1 226.06.231.50 2016	ACTUACIONES SENSIBILIZACION. PR.IGUALDAD	22.500,00	1.480,53	21.019,47
1 227.01.323.20 2016	LIMPIEZA. COLEGIO URDANETA	104.250,00	16.730,37	87.519,63
1 227.01.326.10 2016	LIMPIEZA. E.P.A.	4.950,00	402,68	4.547,32

1 211.01.337.20 2016	MANT.EDIFICIOS. JUVENTUD	1.000,00	856,08	143,92
1 226.99.337.20 2016	GASTOS DIVERSOS. JUVENTUD	600,00	600,00	0,00
1 230.01.431.10 2016	DIETAS, LOCOMOCION. FERIAS ESPECIALES	2.000,00	1.082,00	918,00
1 221.99.431.20 2016	SUMINISTROS VARIOS. MERCADO	4.000,00	1.285,67	2.714,33
1 226.99.431.20 2016	GASTOS DIVERSOS. MERCADO SEMANAL	2.500,00	1.843,11	656,89
1 211.01.432.00 2016	MANT. EDIFICIOS. PROMOCION TURISTICA	2.500,00	2.314,34	185,66
1 212.01.432.00 2016	MANT.MAQU.UTILLAJE. D'ELIKATUZ	5.000,00	3.051,28	1.948,72
1 226.03.912.00 2016	PUBLICIDAD	2.500,00	1.000,00	1.500,00
1 226.98.912.00 2016	GASTOS NO DESEADOS	5.000,00	4.578,92	421,08
1 227.07.912.00 2016	ESTUDIOS Y TRABAJOS TECNICOS	6.000,00	6.000,00	0,00
1 231.01.912.00 2016	DIETAS, LOCOMOCION. ORGANOS GOBIERNO	49.000,00	10.000,00	39.000,00
1 226.07.924.00 2016	UDAL ALDIZKARIA	24.000,00	7.500,00	16.500,00
1 230.01.924.00 2016	DIETAS LOCOMOC. PR.VOLUNT. PART.CIUDAD.	100,00	49,82	50,18
1 221.01.165.00 2016	ENERGIA ELECTRICA. ALUMBRADO PUBLICO	146.000,00	5.478,21	140.521,79
1 221.01.171.20 2016	ENERGIA ELECTRICA. OIANGU	3.000,00	3.000,00	0,00
1 200.01.153.40 2016	ARRENDAMIENTO TERRENOS. VIAS PUBLICAS	125,00	125,00	0,00
1 202.01.153.40 2016	ALQUILER UTILLAJE. VIAS PUBLICAS	500,00	500,00	0,00
1 212.01.153.40 2016	MANT.MAQUIN.UTILLAJE. VIAS PUBLICAS	1.000,00	401,48	598,52
1 213.01.153.40 2016	MANT.VEHICULOS. VIAS PUBLICAS	4.000,00	2.194,73	1.805,27
1 221.09.153.40 2016	ADQUISICION SAL MARINA	1.000,00	300,00	700,00
1 224.02.153.40 2016	SEGUROS. VIAS PUBLICAS	850,00	260,87	589,13
1 200.01.164.00 2016	ARRENDAMIENTO	60,00	60,00	0,00

	TERRENOS. CEMENTERIO			
1 211.01.164.00 2016	MANT.EDIFICIOS. CEMENTERIO	500,00	253,30	246,70
1 212.01.164.00 2016	MANT.MAQUIN.UTILLAJE. CEMENTERIO	200,00	6,76	193,24
1 227.01.164.00 2016	LIMPIEZA. CEMENTERIO	1.140,00	79,71	1.060,29
1 230.01.165.00 2016	DIETAS, LOCOMOCION. ALUMBRADO PUBLICO	200,00	200,00	0,00
1 211.01.171.10 2016	MANTENIMIENTO ALMACEN DE JARDINERIA	100,00	33,58	66,42
1 213.01.171.10 2016	MANT.VEHICULOS. PARQUES Y JARDINES	3.000,00	727,29	2.272,71
1 214.01.171.10 2016	MANT.MOBILIARIO. PARQUES Y JARDINES	2.000,00	349,94	1.650,06
1 224.02.171.10 2016	SEGUROS. PARQUES Y JARDINES	465,00	3,97	461,03
1 227.01.171.10 2016	LIMPIEZA. PARQUES Y JARDINES	1.140,00	79,69	1.060,31
1 227.02.171.10 2016	SEGURIDAD. PARQUES Y JARDINES	100,00	88,70	11,30
1 230.01.171.10 2016	DIETAS, LOCOMOCION. PARQUES Y JARDINES	150,00	150,00	0,00
1 227.02.323.30 2016	SEGURIDAD. IKASTOLA JAKINTZA	500,00	38,34	461,66
1 226.06.326.10 2016	ACTIVIDADES. E.P.A.	900,00	261,28	638,72
1 221.09.337.20 2016	PRODUCTOS LIMPIEZA. JUVENTUD	50,00	50,00	0,00
1 226.06.337.20 2016	ACTIVIDADES SOCIOCULTURALES. JUVENTUD	4.000,00	931,83	3.068,17
1 227.01.337.20 2016	LIMPIEZA. JUVENTUD	4.070,00	512,45	3.557,55
1 227.02.337.20 2016	SEGURIDAD. JUVENTUD	500,00	146,51	353,49
1 227.04.337.20 2016	CONTRATOS SOCIOCULTURALES. JUVENTUD	45.000,00	458,82	44.541,18
1 230.01.337.20 2016	DIETAS, LOCOMOCION. JUVENTUD	200,00	10,01	189,99
1 213.01.431.20 2016	MANT.VEHICULOS. MERCADO	1.500,00	1.268,90	231,10
1 222.05.431.20 2016	COMUNICACION INFORMATICA. MERCADO	700,00	117,62	582,38

1 226.92.431.20 2016	ANIMACION NUEVO MERCADO SEMANAL	15.000,00	6.893,56	8.106,44
1 226.03.432.00 2016	PROMOCION TURISTICA	3.000,00	1.451,88	1.548,12
1 213.01.912.00 2016	MANTENIM. VEHICULOS. ORGANOS GOBIERNO	150,00	150,00	0,00
1 224.01.912.00 2016	SEGUROS. ORGANOS GOBIERNO	14.100,00	62,80	14.037,20
1 224.02.912.00 2016	SEGUROS. ORGANOS DE GOBIERNO	105,00	3,17	101,83
1 224.99.912.00 2016	SEGUROS. ORGANOS DE GOBIERNO	13.500,00	123,52	13.376,48
1 226.97.912.00 2016	PAZ Y CONVIVENCIA	6.000,00	3.748,31	2.251,69
1 227.01.933.00 2016	LIMPIEZA. VIVIENDA	6.210,00	39,57	6.170,43
1 221.01.326.10 2016	ENERGIA ELECTRICA. E.P.A.	4.000,00	194,93	3.805,07
1 221.01.326.20 2016	ENERGIA ELECTRICA. KONEKTA ZAITEZ	1.450,00	384,10	1.065,90
1 221.01.333.10 2016	ENERGIA ELECTRICA. CULTURA	21.500,00	2.409,37	19.090,63
1 221.01.337.10 2016	ENERGIA ELECTRICA. HOGAR JUBILADO	12.000,00	442,78	11.557,22
1 221.01.337.20 2016	ENERGIA ELECTRICA. JUVENTUD	5.500,00	607,67	4.892,33
1 221.01.432.00 2016	ENERGIA ELECTRICA. D'ELIKATUZ	14.500,00	175,50	14.324,50
1 221.01.920.00 2016	ENERGIA ELECTRICA. ADMINISTRACION GENERAL	15.000,00	915,19	14.084,81
1 221.03.132.00 2016	SUMINISTRO GAS. POLICIA MUNICIPAL	600,00	318,81	281,19
1 221.03.231.00 2016	SUMINISTRO DE GAS. BIENESTAR SOCIAL	2.050,00	479,26	1.570,74
1 221.03.933.00 2016	SUMINISTRO DE GAS. VIVIENDA	500,00	87,42	412,58
1 221.04.132.00 2016	COMBUSTIBLE. POLICIA MUNICIPAL	2.750,00	147,39	2.602,61
1 221.04.153.40 2016	COMBUSTIBLE. VIAS PUBLICAS	2.500,00	601,15	1.898,85
1 221.04.163.00 2016	COMBUSTIBLE. LIMPIEZA VIARIA	17.000,00	397,44	16.602,56
1 221.04.165.00 2016	COMBUSTIBLE.	1.800,00	382,27	1.417,73

	ALUMBRADO PUBLICO			
1 221.04.171.10 2016	COMBUSTIBLE. PARQUES Y JARDINES	5.500,00	1.074,84	4.425,16
1 221.04.323.20 2016	COMBUSTIBLE. COLEGIO URDANETA	21.000,00	1.457,15	19.542,85
1 221.04.933.00 2016	COMBUSTIBLE. VIVIENDA	500,00	500,00	0,00
1 480.01.152.20 2016	SUBVENCIONES REHABILITACION. URBANISMO	30.000,00	13.000,00	17.000,00
1 481.04.231.00 2016	SUBVENCION "STOP DESAHUCIOS"	6.000,00	6.000,00	0,00
1 481.01.912.00 2016	TRANSFERENCIAS. ORGANOS GOBIERNO	10.000,00	4.500,00	5.500,00
1 227.01.311.10 2016	LIMPIEZA. DESINFECCION Y DESRATIZACION	13.000,00	3.000,00	10.000,00
1 471.01.430.00 2016	TRANSFERENCIAS A EMPRESAS	85.000,00	4.363,75	80.636,25
1 480.01.335.00 2016	BECAS APRENDIZAJE. PROMOCION EUSKERA	18.000,00	2.500,00	15.500,00
1 833.01.920.00 2016	ANTICIPOS AL PERSONAL	45.000,00	45.000,00	0,00
1 211.01.231.00 2016	MANT.EDIFICIOS. BIENESTAR SOCIAL	500,00	500,00	0,00
1 227.01.231.00 2016	LIMPIEZA. BIENESTAR SOCIAL	11.550,00	2.654,55	8.895,45
1 215.01.432.00 2016	MANT.EQUIP.INFORMATIC O. D'ELIKATUZ	1.000,00	1.000,00	0,00
1 332.01.011.00 2016	INTERESES DE PRESTAMOS DEL INTERIOR	49.415,00	10.324,89	39.090,11
GUZTIRA		1.036.895,00	237.592,31	799.302,69

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 120.01.132.00 2016	RETRIB.BASICAS. POLICIA MUNICIPAL	187.925,00	5.483,64	193.408,64
1 121.01.132.00 2016	RETRIB.COMPLEMENTARI	373.270,00	21.891,37	395.161,37

	AS.POLICIA MUNICIPAL			
1 121.05.132.00 2016	HORAS EXTRAS FESTIVAS. POLICIA MUNICIPAL	4.000,00	4.208,00	8.208,00
1 201.01.333.10 2016	ALQUILER DE LOCALES. CULTURA	7.000,00	3.571,48	10.571,48
1 205.01.931.00 2016	USO DE ORDENADOR C.P.D. ADMIN.FINANCIERA	52.255,00	4.770,70	57.025,70
1 211.01.326.40 2016	MANTENIMIENTO ESCUELA DE IDIOMAS	500,00	25,12	525,12
1 211.01.337.10 2016	MANT.EDIFICIOS. HOGAR JUBILADO	17.000,00	100,09	17.100,09
1 212.01.132.00 2016	MANT.MAQUIN.UTILLAJE. POLICIA MUNICIPAL	850,00	4.207,82	5.057,82
1 212.01.133.00 2016	MANT.MAQUIN.UTILLAJE. CONTROL TRAFICO	11.067,20	2.351,36	13.418,56
1 212.01.335.00 2016	MANTENIMIENTO MAQUINARIA, INSTALACIONES,	360,00	152,47	512,47
1 212.01.337.10 2016	MANT.MAQUIN.UTILLAJE. HOGAR JUBILADO	1.800,00	284,16	2.084,16
1 213.01.132.00 2016	MANT.VEHICULOS. POLICIA MUNICIPAL	1.500,00	4.060,14	5.560,14
1 213.01.163.00 2016	MANT.VEHICULOS. LIMPIEZA VIARIA	21.340,86	2.301,70	23.642,56
1 220.01.332.10 2016	MATERIAL OFICINA. CULTURA	0,00	119,98	119,98
1 221.09.920.00 2016	PRODUCTOS LIMPIEZA. ADMINISTR. GENERAL	0,00	4.997,04	4.997,04
1 222.01.341.00 2016	COMUNIC.TELEFONICAS. MAJORI	0,00	401,67	401,67
1 222.02.920.00 2016	COMUNICACIONES POSTALES. ADMINISTR.GENERAL	16.000,00	2.780,34	18.780,34
1 226.03.920.00 2016	PUBLICIDAD PROPAGANDA. ADMINISTR.GENERAL	1.000,00	2.265,71	3.265,71
1 226.04.920.00 2016	ASISTENCIA JURIDICA. ADMINISTR.GENERAL	2.000,00	941,71	2.941,71
1 226.97.338.10 2016	FIESTAS EN BARRIOS	0,00	9.202,27	9.202,27
1 226.98.338.30 2016	ADORNOS NAVIDAD	17.000,00	58,64	17.058,64
1 226.99.334.00 2016	GASTOS DIVERSOS.	129.435,91	13.902,80	143.338,71

	CULTURA			
1 226.99.335.00 2016	GASTOS DIVERSOS. PROMOCION EUSKERA	63.148,00	1.534,67	64.682,67
1 226.99.338.20 2016	EUSKAL JAIK. ASTEAZKENA	44.655,36	8.563,10	53.218,46
1 226.99.430.00 2016	ACTIVIDADES DE DINAMIZACION COMERCIAL	4.845,20	1.175,09	6.020,29
1 227.01.311.20 2016	LIMPIEZA. EVACUATORIOS	21.035,00	2.088,07	23.123,07
1 227.01.326.20 2016	LIMPIEZA. KONEKTA ZAITEZ	2.625,00	785,29	3.410,29
1 227.01.335.00 2016	LIMPIEZA. EUSKARA	3.020,00	659,85	3.679,85
1 227.01.442.00 2016	LIMPIEZA. TRANSPORTES TERRESTRES	1.140,00	616,59	1.756,59
1 227.01.929.00 2016	LIMPIEZA. JUZGADO	745,00	761,73	1.506,73
1 227.04.326.30 2016	HAUR TXOKOA ETA HIRI HEZITZAILE PROGRAMA	41.990,98	1.537,28	43.528,26
1 227.04.920.00 2016	CONTRATOS SERVICIOS. ADMINISTR.GENERAL	10.000,00	5.015,61	15.015,61
1 230.01.326.30 2016	DIETAS, LOCOMOCION. CIUDAD EDUCADORA	0,00	317,89	317,89
1 421.01.414.00 2016	APORTACION A GOIMEN Y MATADERO TOLOSA	12.860,00	1.154,74	14.014,74
1 422.01.912.00 2016	APORTACION A EUDEL	1.500,00	2,53	1.502,53
1 433.01.341.00 2016	APORTACION A MAJORI KIROLDEGIA	817.196,00	0,16	817.196,16
1 481.01.323.10 2016	TRANSFERENCIAS. GUARDERIA	388.104,00	38.000,00	426.104,00
1 481.01.334.00 2016	TRANSFERENCIA INSTITUCIONES. CULTURA	29.000,00	10.478,04	39.478,04
1 481.01.338.30 2016	DIRU-LAGUNTZAK	0,00	2.612,31	2.612,31
1 481.02.337.10 2016	SUBVENCION CONSUMO DE AGUA	2.700,00	487,28	3.187,28
1 623.01.432.00 2016	1 PROYECTOR	0,00	1.980,00	1.980,00
1 623.04.132.00 2016	UTILES,HERRAMIENTAS. POLICIA MUNICIPAL	832,75	17,44	850,19
1 623.04.135.00 2016	UTILES Y HERRAMIENTAS. PROTECCION CIVIL	0,00	273,68	273,68
1 623.04.231.00 2016	1 PIZARRA	0,00	338,85	338,85
1 623.04.323.20 2016	UTILES, HERRAMIENTAS.	0,00	15,98	15,98

	COLEGIO URDANETA			
1 623.04.912.00 2016	UTILES Y HERRAMIENTAS. ORGANOS GOBIERNO	0,00	193,60	193,60
1 623.04.931.00 2016	1 DESTRUCTORA	118,99	343,65	462,64
1 625.01.337.20 2016	MOBILIARIO GAZTELEKU	0,00	130,68	130,68
1 625.01.912.00 2016	1 ARMARIO	0,00	198,28	198,28
1 625.01.933.00 2016	MOBILIARIO. VIVIENDA	0,00	6.897,29	6.897,29
1 626.01.132.00 2016	EQUIPO INFORMATICO. POLICIA MUNICIPAL	0,00	564,95	564,95
1 626.01.231.00 2016	EQUIPAMIENTO INFORMATICO	1.200,00	150,95	1.350,95
1 626.01.241.00 2016	EQUIPOS INFORMATICOS. FOMENTO EMPLEO	0,00	5.369,84	5.369,84
1 626.01.332.10 2016	EQUIPO INFORMATICO. CULTURA	5.552,57	1.066,45	6.619,02
1 626.01.333.10 2016	EQUIPO INFORMATICO. CULTURA	0,00	473,11	473,11
1 626.01.335.00 2016	EQUIPO INFORMATICO EUSKARA	0,00	988,57	988,57
1 626.01.432.00 2016	EQUIPO INFORMATICO. D'ELIKATUZ	1.121,67	181,50	1.303,17
1 626.01.931.00 2016	EQUIPOS INFORMATICOS	0,00	1.954,15	1.954,15
1 649.01.132.00 2016	PROGRAMA DE GESTION INTEGRAL	0,00	2.916,52	2.916,52
1 781.01.241.00 2016	INVERSIONES ESCUELA DEL GOIERRI	30.580,00	229,00	30.809,00
1 822.01.231.90 2016	PRESTAMOS A CORTO PLAZO	0,00	35.000,00	35.000,00
1 853.01.912.00 2016	COMPRA DE ACCIONES	0,00	4.945,00	4.945,00
1 211.01.231.20 2016	MANT.EDIFICIOS. CENTRO DE DIA	500,00	2.616,44	3.116,44
1 200.01.133.00 2016	ARRENDAMIENTO TERRENOS. CONTROL TRAFICO	8.000,00	745,97	8.745,97
1 221.02.323.20 2016	CONSUMO DE AGUA. URDANETA	2.500,00	1.259,87	3.759,87
1 221.02.933.00 2016	CONSUMO DE AGUA. VIVIENDA	1.100,00	913,60	2.013,60
1 221.02.171.20 2016	CONSUMO DE AGUA. PARQUE OIANGUREN	500,00	368,33	868,33
1 221.02.171.10 2016	AGUA. PARQUES Y	100,00	305,30	405,30

	JARDINES			
1 201.01.323.10 2016	ALQUILER LOCAL GUARDERIA ALOTZA	6.700,00	284,12	6.984,12
1 227.04.230.20 2016	CONTRATOS SERVICIOS. NORTE-SUR	0,00	2.240,56	2.240,56
1 421.01.170.00 2016	APORTACION A MANCOMUNIDAD ENIRIO- ARALAR	4.000,00	760,19	4.760,19
GUZTIRA		2.351.674,49	237.592,31	2.589.266,80

Hala eta guztiz ere, aipatutako organoak bidezkotzat jotzen duena ebatziko du.

Eztabaida

Alkate jn.

Esan du eguneko gai zerrendako puntuen ordena aldatuko dela. 8. puntua 4. puntua izatera pasako da, gai zerrendako 4. eta 5. puntuak onartzeko orain aztertuko den 8. puntua onartu behar baita.

4. eta 5. puntuak 5. Eta 6. puntuak izatera pasako dira.

Alkate jaunak aurrekontu aldaketa zertan datzan azaldu du.

Eguren jn.

Esan du azkeneko osoko bilkura martxoaren 9an izan zela eta duela astebete eskas Osoko bilkurarako Gaien Batzordeko deialdian 5 puntu zeudela gai ordenean, eta Batzordean beste 10 puntu sartu zirela.

Galdetu du zergatik atzeratu zen Gai Arrunten Batzordea egun bat (asteazkenetik ostegunera). Aste horretan bertan, asteazkenean, apirilaren 19an, Enirio Aralar Mankomunitatearen Batzordeko bilera egin zen.

Udalaren 2016ko ekitaldiko likidazioa osoko bilkurako deialdiarekin batera bidaliko zen baina azkenean ez da eguneko gai ordenean sartu. Nahiko harrigarria da.

Nolanahi ere, puntuaren alde bozkatuko dute.

Idazkari andrea

Azaldu du hilabete honetako Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko deialdiarekin nahiko estu ibili direla Aste Santuko oporraldiengatik.

Gainera, sail askok hilabeteko azken osteguna hartzen dute erreferentzia moduan beraien akordio proposamenak prestatu eta bidaltzeko. Hala ere, kontuan izan behar da Osoko bilkurarako Gaien Batzordeak 8 egun lehenago egiten duela bilera eta Batzorde horren deialdia 6 egun natural lehenago bidaltzen dela. Hau da, hilaren 10. eta 15. egunen artean (osoko bilkuraren egun zehatzaren arabera) bidali beharko lirakeke gaiak Idazkaritzara prestatuta eta itzulita osoko bilkurarako gaien informazio batzordean aztertu ahal izateko.

Alkate jn.

Alkate jaunak erantzun dio Eguren jaunari esanez Mankomunitatearen deialdia askoz ere lehenago egin zela pazko asterako eta gero Iturrioz jaunak Batzordearen deialdia apirilaren 20an egiteko agindua eman zuela Enirio Aralarko Batzordearen deialdia aurretik egin zelako.

Sukia andrea

Esan du aurrekontutik likidaziorako 217.000 euroko desbideraketa harritzen duela eta zenbait kontzeptu aipatu ditu.

Hala ere, bere taldeak proposamenaren alde bozkatuko du.

Alkate jn.

Sukia andreari galdetutako zenbatekoen aldeei buruzko argibideak eman dizkio.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0



5.- Euskara sustatzen diharduten elkarteei diru-laguntza izendunak esleitzea

Proposamena

EUSKARA SUSTATZEKO DIHARDUTEN ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK ESLEITZEA

Ordiziako Udaleko Euskara Delegazioa 2017ko martxoaren 21ean elkartu zen. Bertan, besteak beste, zenbait elkarteri euskara sustatzeko diru-laguntzak emateko dagokion prozedura abiarazteko erabakia hartu zuen.

Estatuko 38/2003 Diru-laguntza Lege Orokorra (22.2.a artikulua) eta 887/2006 Errege Dekretua-diru-laguntza arautegia- (65.1 artikulua)ren zehaztapenak kontuan izanik, Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeari eta Udalbatzari Euskara Zerbitzuak honako hau proposatu nahi dio.

AKORDIO PROPOSAMENA

2017KO Udal Aurrekontuetan "izendun" edo nominatibo gisa jaso ditzala Ordiziako Udalak elkarte hauen aldeko diru-laguntzak:

Xedea	Onuraduna	Zenb.	Diru-partida
Ordiziako Goiztiri AEKren jarduna	Euskaraz Kooperatiba Elkartea	5.400 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.

Udalerrian euskara sustatzeko ekimenak	Hitzaro Euskara Elkarte	16.000 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Ordizian bertsojaritza sustatzeko ekimenak	Goierriko Bertso Eskola	2.500 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Goierriko Hitzaz eskualdeko euskarazko egunkaria	Goierriko Hedabideak S.L.	20.100 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.

Xedea	Onuraduna	Zenb.	
Herri Urrats 2017 ekimena	Herri Urrats elkarte	350 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Nafarroa Oinez 2017 ekimena (Lesaka)	Tantirumairu Ikastola	350 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Araba Euskaraz 2017 ekimena (Bastida)	Bastida Ikastola	150 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Kilometroak 2017 ekimena (Oñati)	Txantxiku Ikastola	150 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Ibilaldia 2017 ekimena (Mungia)	Larramendi Ikastola	150 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Udako Euskal Unibertsitatearen jarduna	Udako Euskal Unibertsitatea	200 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Euskal Eskola publikoaren aldeko Festa	EHIGE gurasoen Elkarte	100 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Kontseiluaren jarduna	Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua	150 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Behatokiaren jarduna	Hizkuntza Eskubideen Behatokia	150 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.
Argia euskarazko aldizkaria	Komunikazio Biziagoa S.A.L	200 €	481.01.335.00 Euskararen sustap. Transf.

Eztabaida

Alkate jn.

Proposamena zertan datzan azaldu du eta diru-laguntza izendunak jasoko dituzten elkarteak zerrendatu ditu.

Maiza andrea

Diru-laguntzak emateko erabiltzen diren irizpideei buruz galdetu du.

Alkate jn.

Erantzun dio.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

6. Kultura sustatzen diharduten elkarteei diru-laguntza izendunak esleitzea

Proposame

“KULTURA DELEGAZIOA” REN PROPOSAMENA

Ordiziako udaleko “kultura ” delegazioa 2017ko apirilaren 20an, elkartu zen. Bertan, besteak beste, kultura (txistulariak, euskal dantzak, abesbatzak, musika ...) sustatzeko dirulaguntzak emateko aukera landu zen.

Horretarako, estatuko 38/2003 diru laguntza lege orokorra (22.2.a) artikulua) eta 887/2006 Errege Dekretua – dirulaguntza erreglamentua – (65.1 artikulua) aipatu ziren, izan ere, bertan zenbait baldintza aurrikusi baitira dirulaguntzak zuzenean emateko. Hain zuzen ere, hauexek:

- 1.- izendun edo nominatibo gisa jasota egotea dirulaguntza
- 2.- zehazki adierazi dadila “ aurrekontuaren gastu-egoeraren xedea” edo helburua
- 3.- argi agertu dadila aurrekontu zuzkidura edo zenbatekoa
- 4.- onuraduna zein den zehaztuta azal dadila

Hori dena ikusita, “Udalbatzako gaien batzorde informatzaileari” (edo “ gai arrunten batzorde informatzaileari”) eta Udalbatzari, “ Kultura delegazioak” zera **PROPOSATU NAHI DIO:**

2017ko udal aurrekontuetan “ izendun “ edo nominatibo gisa jaso ditzala elkarte hauen aldeko dirulaguntza hauek:

Xedea	Onuraduna	Zenbatekoa
Goierriko jazzaldia ekintza	Arama jazz Elkartea	4.500 €
Urteko jarduna	Beti Argi Musika Banda	16.000 €
Urteko jarduna	Ordiziako Txistulariak	3.000 €
Urteko jarduna	Amets Bide Kultura Elkartea	5.000 €
Urteko jarduna	Azen Ordiziako Erraldoien Lagunak Elkartea	3.800 €
Urteko jarduna	Laguntasuna Errondaila	2.350 €
Urteko jarduna	Larrun Arri Abesbatza	700 €
Urteko jarduna	Ortzadar Argazki Elkartea	2.000 €
Urteko jarduna	Urrup Antzerki Elkartea	3.500 €
Urteko jarduna	Ordiziako Trobadore Alaiak -Ordiziarrock	5.000 €
Lazkao txiki bertso	Argi berri Elkartea	3.000 €

papera		
Urteko jarduna	Oroith Abesbatza	3.120 €
Urteko jarduna	Kimetz Emakumeen Elkarte	1.400 €
Urteko jarduna	Santa Ana Abesbatza	1.500 €
Urteko jarduna	Urdanetarrak-Urdaneta Dantza Taldea	800 €
Urteko jarduna	Urdanetako Ahotsak	800 €
Urteko jarduna	Lemniskata Goierriko Zientzia Sare Herrikoia	4.000 €
Urteko jarduna	Altarte Elkarte	800 €

Partida origen		Importe
481.05.334.00.1200	OTRAS SUBVENCIONES (ROCK, JAZZ)	8500
481.01.334.00.1200	TRANSFERENCIAS INSTITUCIONES . CULTURA	34620
226.99.338.10.1400	FIESTAS PATRONALES	11150
226.99.338.20.1400	FIESTASVASCAS	464,53
226.99.338.30.1400	FIESTAS NAVIDEÑAS	3292,01
226.99.334.00.1200	GASTOS DIVERSOS. CULTURA	4768,46

Eztabaida

Alkate jn.

Adierazi du puntu honetan ere, aurrekoan bezala, Kultura Sailak emango dituen diru-laguntza izendunak proposatzen direla.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

7. Herri Antzokia eta San Jose Egoitzako 2016ko Aurrekontuen likidazioen berri ematea

Proposamena

“Herri Antzokia “Erakunde Autonomoaren Kontu-hartzaileak, 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz ondorengo txostena egin du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan jasotakoa betez:

TXOSTENA

Udalbatzarrak 2016ko maiatzaren 26an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Udal honen 2016ko aurrekontua. Aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldaketena, ondoko taulan xehatzen da:

Hazierako aurrekontua:	211.080,00
Kreditu gaikuntzak:	6.541,71
Kreditu:	0,00
Balioabatzearen ziozko haiek:	0,00
Kreditu:	45.416,46
<hr/>	
Behin betiko aurrekontua:.....	263.038,17

1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:

KAPITULUA	2016 EKITALDIA			2015 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1 - Pertsonal gastuak	101.516,60	101.516,60	100,00	105.020,00	102.596,27	97,69
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	100.055,11	99.843,73	99,79	102.975,00	92.035,54	89,38
3 - Finantza gastuak	50,00	0,00	0,00	50,00	3,60	7,20
4 - Transferentzia arruntak	1.000,00	1.000,00	100,00	1.000,00	1.000,00	100,00
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	60.416,46	57.705,51	95,51	15.000,00	10.509,12	70,06
7 - Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	263.038,17	260.065,84	98,87	224.045,00	206.144,53	92,01

Bereziki, gauzatutakoaren portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa dela eta, ondoko partidak nabarmendu behar dira:

PARTIDA	IZENA	AURREKONTUA	ONARTU.OBLIGAZ	%
1 227.04.333.20 2016	Pelikulen kontratua	52.980,11€	54.464,10€	102

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:

GAUZATZE FASEA	2016 EKITALDIA		2015 EKITALDIA	
	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %
Obligaciones reconocidas (Fase O)	57.705,51	95,51	10.509,12	70,06
Gastos dispuestos (Fase D)	57.705,51	95,51	10.509,12	70,06
Gastos autorizados (Fase A)	60.416,46	100,00	12.247,55	81,65
Total créditos	60.416,46	100,00	15.000,00	100,00

PARTIDA	IZENA	AURREKONTUA	ONARTU.OBLIGAZ	%
1 622.01.333.20 2016	Inbertsioak	60.416,46€	57.705,51€	95

Beraz, oro har esan daiteke gauzatze portzentaia handia izan dela kapital eragiketetan eta aurreko urteei begira hobetu egin dela.

2.- NORAINO BURUTU DIREN OBLIGAZIO ONARTUAK

Aurrekontuko obligazio onartuengatik ordainketek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertzen dituzte kapituluka, bai aurtengo ekitaldian bai aurrekoan ere:

KAPITULUA	2016 EKITALDIA			2015 EKITALDIA		
	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%
1 - Pertsonal gastuak	101.516,60	101.218,68	99,71	102.596,27	102.298,35	99,71
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	99.843,73	92.860,35	93,01	92.035,54	84.634,45	91,96
3 - Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00	3,60	3,60	100,00
4 - Transferentzia arruntak	1.000,00	1.000,00	100,00	1.000,00	1.000,00	100,00
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	57.705,51	57.705,51	100,00	10.509,12	10.509,12	100,00
7 - Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	260.065,84	252.784,54	97,20	206.144,53	198.445,52	96,27

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea oso handia izan dela bai eragiketa arruntetan eta baita ere kapital eragiketetan izan dela.

3.- NORAINO GAUZATU DEN SARREREN AURREKONTUA

Ondoko taulan jaso dira sarreraren aurreikuspenetan izan diren desbiderapenak, hau da, behin betiko aurreikuspenen eta benetan likidatutako eskubideen arteko aldea, kapituluka, azken bi ekitaldietan, bai balio absolutuetan bai portzentajetan:

KAPITULUA	2016 EKITALDIA			2015 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%
1 - Zuzeneko zergak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2 - Zeharkako zergak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3 - Tasak eta bestelako zergak	62.941,71	65.967,38	104,81	64.400,00	62.946,19	97,74
4 - Transferentzia arruntak	127.680,00	127.832,51	100,12	113.145,00	119.182,63	105,34
5 - Ondare sarrerak	12.000,00	13.766,72	114,72	12.000,00	10.050,00	83,75
6 - Inbertsio errealak besterenganatetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatua	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7 - Kapital transferentziak	15.000,00	15.000,00	100,00	15.000,00	10.878,78	72,53
8 - Finantza aktiboak	45.416,46	0,00	0,00	19.500,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	263.038,17	222.566,61	84,61	224.045,00	203.057,60	90,63

Bereziki, gauzatze portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:

PARTIDA	IZENA	AURREKONTUA	ONARTU.ESKUBIDE	%
2 340.01 2016 103	Leihatila sarrera	62.041,71€	64.089,00€	
2 430.01 2016 100	Udalaren ekarpena	118.680,00€	118.680,00€	

Beraz, oro har esan daiteke exekuzioaren portzentajea oso handia eragiketa arruntetan eta baita kapital eragiketetan.

4.- NORAINO BURUTU DIREN ESKUBIDE ONARTUAK

Aurrekontuko eskubide onartuengatik egindako kobrantzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertu dituzte kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz iazkoan:

KAPITULUA	2016 EKITALDIA			2015 EKITALDIA		
	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZ A LIKIDOAK	%	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%
1 - Zuzeneko zergak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2 - Zeharkako zergak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3 - Tasak eta bestelako zergak	65.967,38	65.275,81	98,95	62.946,19	61.326,19	97,43
4 - Transferentzia arruntak	127.832,51	121.944,80	95,39	119.182,63	113.144,00	94,93
5 - Ondare sarrerak	13.766,72	7.950,00	57,75	10.050,00	6.950,00	69,15
6 - Inbertsio errealak besterenganatetik eta hirigintzako jardueretatik ondori	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7 - Kapital transferentziak	15.000,00	15.000,00	100,00	10.878,78	5.241,27	48,18
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	222.566,61	210.170,61	94,43	203.057,60	186.661,46	91,93

Bereziki, beren garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:

PARTIDA	IZENA	ONARTU.ESKUBIDE	SARRERA	%
2 340.01 2016	Leihatila sarrera	64.089,00€	63.723,00€	99
2 430.01 2016	Udalaren ekarpena	118.680,00€	118.680,00€	100
2 731.01 2016	Inbertsiotako ekarpena	15.000,00€	15.000,00€	100

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea oso handia izan dela.

5.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN ORDAINDU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko saldoetatik honako hauek ordaindu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	ORDAINKETA BUKAER. SALD.	ORDAINKETA PORTZENTAJE A
2014	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2015	7.699,01	3,40	7.695,61	0,00	100,00
GUZTIRA	7.699,01	3,40	7.695,61	0,00	99,96

6.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN KOBRATU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko saldoetatik, honakoak kobratu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	KOBRATZEKE BUKAER.SALD.	KOBRANTZA-PORTZENTAJE A
2013	2.108,09	2.108,09	0,00	0,00	0,00
2015	16.396,14	0,00	16.396,14	0,00	100,00
GUZTIRA	18.504,23	2.108,09	16.396,14	0,00	88,61

7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoen bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:

PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED. DGrekin FINAN	OBL.ONART. DGrekin FINAN.
622.01.333.20	INBERTSIOAK	45.416,46	43.378,58
	GUZTIRA	45.416,46	43.378,58

8.- DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK, FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETAN

Aurtengo ekitaldi ekonomikoan, gastu-proiektu hauek ez dira gauzatu.

9.- SALDO KOBRAGAITZEN ESTIMAZIOA

Hurrengo taulan jasoko da kobra-gaitzak edo kobraezinak diren eskubideen estimazioa.

KONTZEPTUA	KOBR. GABEKO HASIER. SALDOA	SALDO BERMATUA	KOBRAGAITZA %-TAN.	KOBRAGAITZA EUROTAN
URTEBETETIK BEHERAKO ZORRAK	12.396,00	0,00	0,00	0,00
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	691,57	0,00	0,00	0,00
4. kap.: transferentzia arruntak	5.887,71	0,00	0,00	0,00
5. kap.: ondare sarrerak	5.816,72	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	12.396,00	0,00	0,00	0,00

10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du aurrekontu emaitza.

Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik balitz, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).

AURREKONTUAREN EMAITZA			
KONTZEPTUAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korranteak	207.566,61	202.360,33	5.206,28
b) Kapital-eragiketak	15.000,00	57.705,51	-42.705,51
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
1. URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA	222.566,61	260.065,84	-37.499,23

(1=a+b+c+d)			
KONTZEPTUAK	AINTZATETSITAKO ESKUBIDEAK EZEZTATZEA	AINTZATETSITAKO OBLIGAZIOAK EZEZTATZEA	ITXITAKO EKITALDIETAKO ADURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korranteak	0,00	3,40	3,40
b) Kapital-eragiketak	2.108,09	0,00	-2.108,09
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
2. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTU-EMAITZA (2=a+b+c+d)	2.108,09	3,40	-2.104,69
3. DOIKUNTZEN AURREKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)			-39.603,92
<u>DOIKUNTZAK :</u>			
a) Gastu orokorretarako diruzainzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak			43.378,58
b) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze negatiboak			0,00
c) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze positiboak			0,00
4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c)			43.378,58
AURREKONTU- EMAITZA DOITUA (3+4)			3.774,66

11.- DIRUZAINZAKO GERAKINA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du diruzaintzako gerakina.

Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Bestela esanda: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, horien epemuga ere abenduaren 31n amaituko litzatekeela pentsatuz.

Hiru dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura.
- Gehiegizko finantzaketa lotua.
- Gastu orokorretarako diru-zaintzako gerakina.

Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura enteak kobra-gaitz edo kobraezintzat hartutako eskubide kobratu gabeen estimazioa da. Kobratu gabeko eskubide horiek 9. apartatuan zehazten dira.

Gehiegizko finantzaketa lotuak bi osagai ditu. Alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulatzen dira erakunde finantzatzaile bakoitzarentzat eta, bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili behar da, edota halakorik balitza, proiektatu

den gastua osorik edo zati batean burutu ezin izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko. Bestalde, kontuan hartzen ditu baita ere, entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, diruzaintza gerakinari estimatutako kobrantza zalantzarrikiko saldoak eta gehiegizko finantzaketa lotua kenduko dizkiogu.

DIRUZAINZAKO GERAKINA		
Kontu zbk.	Osagaiak	Ekitaldia
57	1. (+) funts likidoak	17.111,62
	2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak	22.676,36
430,433,437,438	-(+) urteko aurrekontukoak	12.396,00
431,434,439	-(+) itxitako aurrekontutakoak	0,00
440,442,449,456,470, 471,472,548,550	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak	10.280,36
	3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	20.339,63
400	-(+) urteko aurrekontukoak	7.281,30
401	-(+) itxitako aurrekontutakoak	0,00
165,166,180,185,410, 414,419,453,475,476, 477,502,515,516,521, 560,561	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak	13.058,33
	4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak	0,00
554,559	-(-) behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak	0,00
555, 5581, 5585	-(+) behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak	0,00
	I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 – 3 + 4)	19.448,35
4900,4901,4902,4903	II. Kobrantza zalantzarrikiko saldoak	0,00
	III. Gehiegizko finantzaketa lotua	0,00
	IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I – II – III)	19.448,35

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina guztira 19.448,35 eurokoa izan da; horietatik:

⇒ 0,00 euro, hau da, kobrantza zalantzarrikiko saldoen hornidura, kredituen zenbatekoen balio-galera zuzkitzera zuzendu da.

⇒ 0,00 euro, hau da, gehiegizko finantzaketa lotua. Atal honek bi osagai ditu; alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili daiteke; eta bestetik, kontuan hartzen ditu entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

⇒ 19.448,35 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta berau erabili ahal izango da, kreditu aldaketak finantzatzeko (bai finantzaketa lotua duten gastuetarako eta baita gastu orokorretarako ere).

12.- EMAITZAK EGIAZTATZEA

KONTZEPTUA	EURO
Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina	59.052,27
+ Sarrerak itzultzeagatik sortutako hartzekodunak, 2015-12-31n	0,00
+ Aurtengo ekitaldiko aurrekontu-emaiza (doitu aurretik)	-39.603,92
Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira	19.448,35

13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatzen dira.

21/2003 Foru Arauak 44.1 artikuluan agintzen duenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu gerakinak) zuzenbide osoz balio gabetuko dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak 32.1 artikuluan jaso du zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

- Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiruhilekoan onartu badira.
- Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela-eta obligazioa ezin izan bada onartu.
- Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- Kapital eragiketarako kredituak.

Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, ondoko taulan zehaztuta daude aurtengo ekitaldiaren likidazioaren emaiza diren eta txerta daitezkeen kreditu gerakinak. Txertaketa zurrizko, aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Nolanahi ere, kredituak txertatzea aukerakoa da eta, egitekotan, ekainaren 30a baino lehen onartu beharreko kreditu aldaketarako espediente baten (edo batzuen) bitartez egin beharko da.

PARTIDA	AZALPENA	GERAKINEN ZENBATEKOA	EGOERA				
			a	b	c	d	e
6 200.00.333.20 2016	ONDASUN ARRUNTEN GASTUAK	211,38		X	X		
1 622.01.333.20 2016	INBERTSIOAK	2.710,95				X	
TXERTA DAITEZKEEN KREDITUEN GUZTIZKOA		2.922,33					
TXERTATU EZIN DIREN KREDITUEN GUZTIZKOA		50,00					
KREDITU GERAKINEN GUZTIZKOA		2.972,33					

Udal honetako Kontuhartzaileak, 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz ondorengo txostena egin du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan jasotakoa betez:

TXOSTENA

Udalbatzarrak 2016ko maiatzaren 26an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen San Jose Egoitzaren 2016ko aurrekontua. Aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldaketena, ondoko taulan xehetzen da:

Hazierako aurrekontua:	2.715.560,00
Kreditu gaitzuzak:	80.124,20
Kreditu:	0,00
Baliogabetzearen ziozko haiek:	0,00
Kreditu:	0,00
<hr/>	
Behin betiko	2.795.694,20
aurrekontua:.....	

Aurrekontu horren exekuzioan ondorengo hauek azpimarratu behar dira:

Aurrekontu honen puntu aipagarrienak ondorengoak dira:

- 1) Gastuen joera azterturik Haltzariak partidaren 3.000 eurotako igoera aurre ikusi zela, baina ekitaldiaren itxieran ez zela beharrezkoa izan.
- 2) Gastuen joera azterturik Garbiketa produktuen partidaren 2.000 eurotako igoera aurre ikusi zela, baina ekitaldiaren itxieran ez zela beharrezkoa izan.
- 3) Euleneko ordu/prezioaren igoera ez zela aurrekontuan sartu, igoera %0,07koa izanik, honetaz gain aurre ikusitako absentismoa %8,9 zela eta benetan eman zena %16koa izan zela, iraupen luzeko bi bajengatik. Bestalde, zerbitzu orduen igoera %2koa izan da, Zentruaren okupazioa urte osoan guztizkoa izan delako. Guzti honengatik aipatutako hiru faktoreek Zerbitzu Prestaketa partidaren guztizko igoeraren %14, %42 eta %44a suposatzen dute.
- 4) Haltzarien erosketa partidaren 1.597,20 eurotako gastu bat onartu dela Egoitzako toki desberdinetako behar ziren aulkia erosteko.
- 5) Ordiziako Udaletik jasotako 35.000 eurotako mailegua Epe Motzeko Maileguen Amortizazio partidaren gehitu dela, mailegu hau ez da 2016ko ekitaldian itzuli, hain zuzen ere 2017-01-10ean itzuli da.

1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:

KAPITULUA	2016 EKITALDIA			2015 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1 - Pertsonal gastuak	709.416,94	709.416,94	100,00	718.914,52	713.316,81	99,22
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	2.049.241,06	2.018.095,64	98,48	1.981.271,48	1.975.071,24	99,69
3 - Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4 - Transferentzia arruntak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	2.036,20	2.036,20	100,00	48.235,08	46.822,92	97,07
7 - Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	35.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	2.795.694,20	2.729.548,78	97,63	2.748.421,08	2.735.210,97	99,52

Bereziki, gauzatutakoaren portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa dela-eta, ondoko partidak nabarmendu behar dira:

Partida	Aurrekontua	Obligazio onartuak	Azalpena
215.01	13.750,00	7.306,42	5.393,56 € gelditu dira Udalari itzultzeko
227.07	1.606.715,00	1.584.662,50	23.637,57€ gelditu dira itzultzeko 2016-12-31an
922.01	35.000,00	0	35.000€ itzuli zaizkio Udalari 2017an

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:

GAUZATZE FASEA	2016 EKITALDIA		2015 EKITALDIA	
	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %
Obligazio onartuak (O fasea)	2.036,20	100,00	46.822,92	97,07
